

ARRANKUDIAGAKO UDALA

Zergak araupetutako dituzten Agintarau Fiskalen Aldaketak eta Onarpenak behin behingo erabakia jendaurrean egon den epealdian ez denez inolako zuzenketa.eskaririk aurkeztu eta 2004-ko urtarrilaren 1etik hasita indarrean egongo direlarik, erabaki horiek behin-betikotzat jotzen dira.-

ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-

I. XEDAPEN ORKORRAK.-

1. Artikulua.-

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorrituz, zerga hori eskatzen du honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.-

2. Artikulua.-

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.-

II. ZERGA EGITEA.-

3. Artikulua.

Zerga honen zerga-egitatea landa-lurreko eta hiri-lurreko ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

- a) Ondasun higiezinaren edo haiek lotuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.-
- b) Lurralde-eskubide erreala.-
- c) Gozamen-eskubide erreala.-

d) Jabetza-eskubidea.-

Aurreko idatz-zatian azaldutako zerga-egitateetako bat gertatuz gero, higiezin modalitate horren zioz egonda da Zergaren kargopean eta beste guztien zioz ez, ezarritako horrenkerari jarraituz.-

Higiezin bat udal-mugarte batean baino gehiagotan badago, Zergaren onodoretarako, haietako bakoitzean bertan duen azaleraren zioz ordainduko zu.-

2. Ondorengoak ez daude Zergaren kargapean:

- a) Errepideak eta bideak eta herri-jabariko itsasoaren eta lehorraren arteko ondasunak eta jabari hidraulikoko ondasunak, baldin eta denen aprobetxamendurako eta doakoak badira.-
- b) Udalen jabetzako ondasun higiezin hauek:
 - Herriarren erabilerarako herri-jabarikoak.-
 - Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati loturiko herri-jabarikoak, gainontzekoei kontraprestazioa tarteko dela lagatakoa izan ezik.-
 - Ondare-ondasunak, gainontzekoei kontraprestazioa tarteko dela lagatakoak izan ezik.-

4. Artikulua.-

Zerga honen onodoretarako, hauexek dira hiri-lurreko ondasun higiezinak:

- a) Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria, antolamendua garatzen duten hirigintzako tresnek urbanizagarri gisa sailkatzen dutena.-
Halaber, bide zoladuradunak edo espaloi zintarridunak dituzten lurrak hiri-lurreko higiezinak joko dira, baldin eta, horiez gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta herriko argiak badituzte.-
Orobat, hiri-eraikuntzak dauden lurrak joko dira horrelakotzat.-

Nekazaritzako legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere horrelakotzat hartuko dira, beti ere, zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen bada, eta, hala ere, haien landa-izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honetakoak ez diren beste ondorioetarako.-

- b) Hiri-eraikuntzak, horrelakotzat hartzen ditugula:
 - Eraikinak direnak direla horiek eraikutzeko erabili diren elementuak;- eraikinok dauden tokiak; eraiki diren lur-mota eta haien erabilera, are eraiki diren moduagatik garraiagarriak direnean eta eraikita dauden lurra eraikuntzaren jabearen ez denean ere; eta eraikuntzat jo daitezkeen merkataritzako eta industriako instalazioak: eustarriak, tankeak eta zamaguneak.-
 - Urbanizazio-eta hobekuntza-obra, esaterako, lur-berdinketak eta aterpe gabeko gunek erabiltzeko egiten direnak, horrelakotzat hartzen direla azoka legez erabiltzeko barrunbeak, zerupeko gordailutegiak; presak, ur-jauziak eta urtegiak – are ohea ere-, kiroletan jarduteko zelaiak edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko gunek.-

- Hurrengo artikuluan landa-lurreko ondasun legez beren beregi ageri ez diren gainerako eraikuntzak.

5. Artikulua.-

Zerga honen ondoreetarako, hauexek dira landa-lurreko ondasun higiezinak:

- a) Aurreko artikuleko a) letran xedatutakoaren arabera, hiri-lurreko ondasun ez diren lurak.-
- b) Landa-eraikuntzak, horrelakotzat hartzen direla landa-lurretan egonik nekazaritzako, abeltzaintzako edo basozaintzako ustiapenei ekiteko ezinbestekoak diren nekazaritzako eraikinak eta instalazioak.

Zerga honen ondoreetarako, inoiz ere ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritzako, abeltzaintzako edo basozaintzako ustiategietan erabiltzen diren estalpe edo aterpe txikiak, baldin eta eraikitze material arinak eta galkorrak erabiltzearen, lurra hobeto aprobetxatzeko, soroak babesteko, abereak aldi batez edukitzeko edo loturik dauden jardueran erabiltzen diren tresnak eta lanabesak gordetzeko besterik ezin erabil badaitezke. Halaber, zerga honen ondoreetarako, ez dira eraikuntzat hartuko landa-lurretan egiten diren obrak eta hobekuntzak, eta hauek haien balioaren osagai banaezinak izango dira.-

SALBUESPENAK.

6. Artikulua.-

Bat. Ondorengo higiezinak daude salbuetsita:

- a) Estatuarenak, Euskal Autonomia Ekidegoarenak, Bizkaiko Lurralde Historikoarenak edo bertako toki-erakundeek, nazio-defentsarako, hiritarren segurtasunerako eta irakaskuntzako eta presolekuen zerbitzurako badira.-
- b) Erkidegoaren ondasunak eta denen eku dauden auzo-mendiak.-
- c) Hazkunde moteleko espeziez basoberritu diren titulartasun publiko edo pribatuko mendiak.

Salbuespen hau otsailaren 2ko 152/1996 Errege Dekretuko 1., 2. eta 3. Eranskinetan aipatu diren hazkunde moteleko espezieentzat da, horien aprobetxamendu nagusia zura edo kotxoa direnean; halaber, zehazten denez, espezie horri dagokion dentsitate arrunta edo ohikoa denean, salbuespena espezie horiek hartzen duten baso-sailentzat ere bada.-

Era berean, aurreko letrak adierazi ez diren basoak, korporazioek, erakundeek eta norbanakoek zehaztu berriak sartzeko dituzten finantziak, dagokienez, eta basozaintzako administrazioak onesten dituen antolamendu-proiektuei edo plan teknikoari loturiko zehaztiak hazten diren lurzatiak.- Letra

honetan ezarritako salbuespenak hamaboste urte iraungo du, eskabidea egiten den zergaldiaren horrengotik zenbaturik.-

- d) Eliza Katolikoarenak, Estatuaren eta Aulki Santuaren arteko 1979ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoei buruzko Akordioan aurreikusitakoaren arabera.-
- e) Eliza Katolikoaz beste elkarte konfesionalak, baldin eta elkarteok legez aintzatetsita badaude, Espainiako Konstituzioaren 16. Artikuluan aipatuta dagoen lankidetzaz hitzarmenetatik datorrenaren arabera, akordio egokiari loturik.-
- f) Espainiako Gurutze Gorriarenak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.-
- g) Atzerriko gobernuenak, haien ordezkari diplomatikoei edo kontsulatu-taldeak, edo haien erakunde ofizialek erabiltzeko direnean, baldin eta elkarrekotasuna badago edo nazioarteko indarreko hitzarmenekin bat badatoz.
- h) Nazioarteko indarreko hitzarmenak direla bide salbuets daitezkeen organismoenak edo erakundeenak.-
- i) Trenbideek atzemandako lurrak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta aisialdiko establezimenduak, ez eta enpleguak bizi izateko egindako etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.-
- j) Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. Artikuluko 2. Idatz-zatiko a)letraz adierazitakoaren arabera monumentu diren ondasun higiezinak.- Monumentu kalifikaturiko kultur ondasunak eta hala inbentariatuta daudenak salbuetsita egongo dira, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen badituzte.-

Halaber, Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 2. artikuluko 2. Idatz-zatiko b)letraz aipatutako monumentu-multzoaren barruan dauden ondasun higiezinak ere salbuetsita daude.- Salbuespen honek uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen dituzten monumentu gisa kalifikatutako edo inbentariatutako babes bereziko edo babes ertaineko araubideen barnean dauden ondasunak soilik hartuko ditu.- Orobat, salbuetsita daude Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 44. Artikuluan ezarritakoaren arabera kultur ondasun adierazitako (kalifikatu zen inbentariatu) alde arkeologiko baten barruan sail egokiak ezartzen badu aurkitutako honarrak bertan egon behar direla eta ezin direla ez ezabatu, ez beste leku batera eraman, higiezin hori Zergatik salbuetsita egongo da.-

- k) Hezkuntza-hitzarmenei helduko ikastetxe pribatuak, harik eta ikastetxe itundu izaera hori galdu arte.-
- l) Gizarte-jarduerak egiteko soilik erabiltzen diren ondasun higiezinak.-
- m) Universidad del Pais Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatearenak.-

- n) A) 6,00 euro gainditzen ez duen kuota likidoa duten hiri-lurreko higiezinak.-
- c) 9,62 euro gainditzen ez duen kuota likidoa duten landa-lurreko higiezinak. Xede horretarako, Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen 9/1989 Foru Arauak bosgarren idatz-zatiaren 25. Artikuluan ezarritako multzoaren emaitza hartuko da balioztat.-
- ñ) Herri-onurako adierazpena duten eta abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauak 1. Kapituluaren ezarritako eskakizunak betetzen dituzten fundazioek eta elkarteek salbuespena izango dute haien titulartasuneko ondasunengatik, baldin eta gainerakoei kontraprestazioz lagatuko ondusunak ez badira, sozietatearen xedea edo helburu zehatza osatzen duten jardueri lotuta badaude, eta gehienbat sozietatearen xedea edo helburuzehatza osatzen ez duten jarduerari edo ustiapen ekonomikoetarako erabiltzen ez badira.-

III. SUBJEKTU PASIBOA.-

7.artikulua.-

Bat. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. Artikuluan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak, bai eta ordenatzaile-ahala baliatzearen zain daudela Zerga honen zerga-egitatea den eskubide baten titular diren jaraunspenak ere.-

Bi. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuta ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkidearen arauari jarraituz. Udalek Zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo ez izan arren kontraprestazio baten bidez bere jabari publikoko edo ondare-ondasunak erabiltzen dituztenei. Halaber, zergadunaren ordezkioak besteri jasanaraz diezaike bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera kuota likidotik dagokion zatia.-

Hiru. Ondasunak pro indiviso badaude edo pertsona askorenak badira, Zergaren ondoretarako subjektu pasiboa haien erkidegoa izango da, indentifikazio fiskaleko kodeari dagokion izendapena aintzat hartuta.-

Erkide kide edo partaide bakoitzaren nortasuna eta partaidetza-kuota Higiezin Katastroan agerrarazi behar dira, denek elkar hartu eta erabaki ondoren berariaz eskatuz gero. Halaber, irabazpideko araubidean dauden ezkontideek ESKA DEZAKETE Higiezin Katastroan ager dadin nortzuk diren.-

Lau. Zerga honen zerga-egitea diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada, dena delakoa kausa, eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 41. Artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondore horietarako, notarioek eskualdatzen den higiezinari buruzko informazioari eskatuko dute, eta Ondsun Higiezinaren gaineko Zergaren zioz hari loturiko ordaindu gabeko zorren berri emango diete bertaratutakoei.-

Bost. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 33. Artikuluan aipatutako erakundeetako partaideek edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Katastroan hala ageri badira.- Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da, hala ere.-

V. ZERGA OINARRIA.-

8. Artikulua.-

Bat. Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da.-

Bi. Katastro-balioa higiezinaren balio fiskala da; Zerga Administrazioak objektiboki kalkulatu du Katastroan dauden datuez baliatuz. Horretarako, merkatu-balioa hartzen da erreferentzia gisa; katastro-balioa ezin da izan hura baino handiagoa.-

9. Artikulua.

Bat. Hiri-lurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa zein den jakiteko, lurzorua balioa eta eraikuntzena batuko dira.

Bi. Lurzoruaren balioa kalkulatzeko, hura ukitzen duten hirigintzako inguruabarrak hartuko dira kontuan.-

Hiru. Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta erakintzako inguruabarrak ez ezik, non dauden, historikoak edo artistikoak diren, zertarako erabiltzen diren edo zein xede duten eta beraien kalitatea ere hartuko dira kontuan, bai eta eraginik eduki dezakeen beste edozein faktore ere.-

10. Artikulua.-

Bat. Landa-lurrerko ondasun higiezinaren katastro-balioa zein den jakiteko, lurrraren balioa eta erakuntzena batuko dira.-

Bi. Landa-lurren balioa kalkulatzeko, arauz ezartzen den korritua, horrek benetan sortzen dituen errentak edo lurrraren emankortasunaren arabera so ditzakeenak eta dauden soroak edo aprobetxamenduak kapitalizatuko dira, haien katastro-ezaugarrien arabera.-

Errentak kalkulatzeko, nekazaritzako ezaugarri homogeenak dituen alde edo eskualde bakoitzean dauden errentamenduak edo gasailak ikertuz lortzen diren datuak hartu ahal izango dira aintzat.-

Idatz-zati honen ondoreetarako, kontuan hartuko dira landa-lurretan egiten diren hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak izango direnak, eta, behar izanez gero, ekoizten hasi arteko urteen kopurua.- Basogintzako ustategiak dauden landa-lurrei dagokienez, zuhaitz berrien adina, zuhaitzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa hartuko dira kontuan.-

Beti ere, kontuan hartuko da aprobetxamendua hobea izateko ekoizpide arruntak erabili beharra, baina ez apartekoak. Hala ere, ustategiaren izaerak edo udalerraren ezaugarriek benetako errenta edo sor litekeena zenbatekoa den jakitea eragozten dutenean, ondasunen katastro-balioa kalkulatu ahal izango da, barean direla hobekuntza iraunkorrak eta baso berriak, kontuan harturik nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta haiek ukitzen dituzten gainerako inguruabarrak.-

Hiru.- Landa-lurreko erakuntzen balioa kalkulatzeko, aurreko artikuluko 3. Idatza-zatian ageri diren arauak aplikatuko dira, horretarako biderik ematen duten heinean.-

11. Artikulua.-

Aipatutako katastro-balioak higiezinaren katastroetan dauden datuak oinarri harturik finkatuko dira.-Higiezinaren Foru Katastro Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri-lurreko eta landa-lurreko jabetzaren inbentarioa eta erregistroa da.-

12. Artikulua.-

Bat. Landa-lurreko Higiezinaren Katastroan eta Hiri-lurreko Higiezinaren Katastroan landa-lur eta hiri-lurreko ondasun higiezinaren datuak eta deskripzioak daude: datuok azalaren, kokaeraren, mugen, soroen edo apretxamenduen, kalitateen, balioen eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri ematen dute, hau da, lurralde-jabetza adierazten dute eta honen alderdi eta aplikazio guztiak azaltzen dituzte. Horrez gainera, hiri-lurreko ondasun higiezinaren identifikaziorako zenbaki finkoa ere agerrarazi behar da.-

Katastroko datu-basean dauden datuak egiazkotzat hartuko dira zergen arloko arautegi orokorrean adierazitakoari lotuz; hala ere, Jabetzaren Erregistroan dauden datuek ondore juridikoak izan ditzakete beste eremu batzuetan.-

Bi. Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera zergapean dauden ondasun higiezinak behar bezala identifikaturik egon behar dira landa-lurreko eta hiri-lurreko higiezinaren katastroetan. Bakoitzak bere erreferentzia eduki behar du katastroan: poligonoaren eta lursailaren aipamena, landa-lurreko ondasunak direnean, edo katastroko zenbaki finkoa, hiri-lurreko ondasunak direnean.-

13. Artikulua.-

Bat. Katastro-balioak legeak ezarritakoaren arabera finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratu ahal dira.-

Bi. Katastro-balioa finkatzea esaten zaio Administrazioak higiezin multzo baten katastro-balioa lehenengoz zehazteko egiten duen eragiketari. Horretarako 9/1989 Foru Arauak 13. Artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.-

Hiru. Katastro-balioa berrikustea esaten zaio Administrazioak aldian-aldian katastro-balioa zehazteari balio hori lehendik ezarrita zuen multzo bati. Horretarako 9/1989 Foru Arauak 13. Artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.-

Lau. Katastro-balioa aldatzea esaten zaio Administrazioak higiezin baten edo multzo baten katastro-balioa zehazteko, hirigintzako plangintza edo beste inguruabarren bat dela bide, haren eta merkatu-balioaren artean diferentzia handia dagoenean, egiten duen eragiketari. Katastro-balioa aldatzeko, lehen aipatutako foru-arauaren 14. Artikuluan ezarritakoaren arabera behar den prozedurari jarraitu behar zaio.

Bost. Katastro-balioa eguneratzea esaten zaio Foru Administrazioak, inflazioa dela-eta katastro-balioak zeharkiturik ez geratzeko, koefiziente jakin batzuk aplikatuz, katastro-balio berriak oro har finkatzeko egiten duen eragiketari Foru-arau bidez agindutako da katastro-balioak koefizienteak aplikatuz eguneratzeko.-

14. Artikulua.

Bat. Katastro-balioa finkatzeko eta berrikusteko prozeduran bi fase daude: lehenbizi, lurzorua mugatu behar da eta balio-ponentziak prestatu eta onetsi behar dira; gero, ondasun bakoitzari bere balioa ezarri behar zaio.

Bi. Balio-ponentzietan, zergarako irizpideak, aldeak edo poligonoak, balorazio-taulak, indarreko hirigintzako plangintza, hiri-lurren mugekin, merkatu-

azterlanen analisiak eta ondorioak, eta katastro-balioak finkatzeko behar diren gainerako elementu guztiak agerrarazi behar dira.-

Onetsi aurretik, ukituriko udalak txostena egin behar du manuz balio-ponentziari buruz; hamabost egun izango dira horretarako.-

Hiru. Balio-ponentziak erabaki bidez onetsiko dira, eta haiei buruzko ediktuak “Bizkaiko Aldizkari Ofizial”ean argitaratuko dira balioek ondoreak sortu behar dituzten seihilekoaren aurreko seihilekoan; ediktuan adieraziko da non eta zenbat denbora, hamabost egun gutxienez, egongo den ikusgai.-

Ponentzien aurka aukerako berraztertzeke errukurtsoa jar daiteke, edo bestela erreklamazio ekonomiko-administratiboa; horretarako epeak errekurtsoei buruzko arauetan ezarri dira. Errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza betearaztea.-

Lau. PONENTZIAK ARGITARATUTAKOAN, katastro-balioak banaka jakinaraziko zaizkie ondasunen jabeei; jakinarazpenean, zenbatekoa nola kalkulatu den azaldu behar da, eta, horretarako, ponentziaren berri eman behar da; eta, behar izanez gero, lurzoruaren eta eraikuntzaren oinarritzko moduluak, lurrek poligono, kale, tarte, alde edo toki horretan duten balioa, eraikuntzen balio-oinarria, aplikatu diren zuzenketa-koefizienteak eta higiezinak katastroaren ondoretarako duen azalera ere adieraziko dira.-

Katastro-balio berriek jakinarazi eta hurrengo urtean izango dituzte ondoreak.- Katastro-balioak jakinarazteko administrazio-egintzak jakinarazteko erabiltzen diren irizpide orokorrak aplikatuko dira.-

Norbanakoak bere higiezinari emandako katastro-balioa aurkaratu ahal du; horretarako aukerako berraztertzeke errekurtsua jar dezake hamabost eguneko epealdian, edo bestela erreklamazio ekonomiko-administratiboa hilabeteko epean.

15. artikulua.

Bat. Hirigintzako plangintza edo bestelako ingurabarren bat dela bide, argi agertzen bada udalerriko ondasun higiezin gehienen katastro-balioaren eta

merkatu-balioaren artean diferentzia handia dagoela, Aldundiak aldatu egingo ditu, ofizioz edo dagokion udalak eskatuta.-

Aldatu beharra dagoenean, 14. Artikuluan ezarritako prozedura berari jarraituko zaio; balio-ponentzia berriak prestatu eta onetsi beharko dira.-

Bi. Balio-diferentziak udalerriko alde, azpialde, jarraigabeko poligono, garapeneremu, burutzapenune edo finka batean edo batzuetan soilik agertzen badira, ez da egongo ponentzia berriak onetsi beharrik.-

Hala gertatzen denean, lehendik dauden ponentziak aldatuko dira, eta, aldatu ondoren, ukituriko udalak txostena egin beharko du; hamabost egun izango ditu horretarako.-

Lurraz zergapean jartzea, lur batzuen sailkapena eta kalifikazioa aldatzea, eta hirigintzako erabilerak edo aprobetxamenduak aldatzea ponentzia-aldaketatzat hartuko dira, berariazko arauetan ezarritakoari lotuz.

Hala aldatzen diren katastro-balioak banaka jakinarazi behar zaizkie subjektu pasiboari administrazio-egintzak jakinarazteko ezarritako irizpideei lotuz, eta jakinarazpenean balio berria nola kalkulatu den azaldu behar da.-

Katastro-balio berriak jakinarazi eta hurrengo urtean sortuko dituzte ondoreak.-

Norbanakoak aldi berean aurkaratu ahal ditu ponentziako balioa eta katastro-balio berria; horretarako aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezake, edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa zuzenean. Hori dela-eta, ponentziak interesatuen eskuko izango dira hilabetean katastro-bulegoetan.-

16. artikulua.

Bat.- Bi udalerritan edo gehiagotan dauden ondasun higieziak dagokienez, haien balioa bi eratara kalkula daitezke:

Higiezin bakoitzari ponentzia bakarra aplikatuz edo erabileraren eta xedearen arabera homogeneousak diren higiezin guztiei ponentzia bera aplikatuz.-

Bi. Halaber, konurbazio bateko udalerririk guztietako higiezinak udalaz gaindiko ponentzia aplikatuz ere balora daitezke.-

17. Artikulua.

Bat. Hiri-lurreko ondasun higiezin katastro-balioa zehazteko, egotzi beharreko gutxieneko balioa zehazteko onetsitako baloratzeko arau teknikoak eta balien koadroa hartu behar dira kontuan.

Bi. Halakoetan, balio-ponentziak aipatutako arau eta balio horien arabera prestatuko dira. Halaber, egotzi beharreko gutxieneko balioa zehazteko erabilitako merkatu-azterlanak ere har daitezke oinarritzat; nolahi ere, haiek antolamendu juridikoan ezarritako betekizun guztiak bete behar dituzte.-

Hiru. Hiri-lurreko ondasun higiezin bat egotzi beharreko gutxieneko balioa ezarrita ez duen erabilera baterako bada, beraren katastro-balioa horretarako berariaz onetsitako irizpideen eta balioen koadroaren arabera kalkulatu da. Horiek balioak egiaztatze ere erabil daitezke balorazio-irizpide gisa, beti ere zio nahiko emanez gero.-

VI. ZERGA KUOTA.-

18. Artikulua.-

Bat.- Zerga honen kuota zehazteko zerga oinarriari karga-tasa aplikatuko zaio.-

Bi.- Karga-tasa:

- Hiri-lurreko ondasunak: %1,12.-
- Landa-lurreko ondasunak: %0,92.-

Hiru.- Kuota likidoa kalkulatzeko, kuota osotik hurrengo artikuluan ezarritako hobariak kendu behar dira, halakorik aplikatzerik badago.-

VII. HOBARIAK.-

19. Artikulua.

1.a) Ordenantza fiskaletan Zergaren kuota osoaren %90era arteko hobaria ezarri ahal izango da, legeriaren eta hirigintzako planen arabera, nekaritzaren, abeltzaintzaren, basozaintzaren edo arrantzaren arloko edo antzeko zerbitzu gutxiago dituzten herriguneetan hiri-lurreko ondasunetarako, baldin eta herrigune horietako inguruabar ekonomikoak aintzat hartuz babes berezia behar dutela uste bada.-

Hobari hau aplikatzeko herriguneek, aldeek edo eremuel izan behar dituen ezaugarri bereziak eta horretarako izan behar diren eraikuntzak eta lurren erabilerak ordenantza fiskalean ezarriko dira, bai eta hobariaren iraupena, urteko zenbatekoa eta erazko eta funtsezko gainerako alderdi guztiak ere.-

7. Zergaren kuota osoaren hobaria %15 ezarri ahal izango da familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat, honako inguruabar hauek tartean badira:

1go. Higiezina subjektu pasiboaren ohiko bizilekua bada.-

Subjektu pasiboak eskatu beharko du hobaria, eta, orobat, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Hobariaren eskabidea; hor, behar bezala identifikatu beharko du higiezina.-
 - Ondasun higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.-
- Familia-unitatea familia ugaria den bitartean jaso ahal izango da hobaria. Subjektu pasiboak egin litezkeen aldaketa guztien berri eman beharko dio Administrazioari, eta Administrazioak eskubidea izango du hobaria emateko bete beharreko eskakizun guztiak betetzen diren ofizioz egiaztatzeko.-

Bestalde, hobaria behar ez bezala erabili dela egiaztatzen bada, egoki diren likidazio osagarriak egingo ditu, hala badagokio, berandutza-korrituak sartuta.- Alabaina, egokiak izan daitezkeen aldaketak egiteari kalterik egin gabe, familia ugariaren titulua iraungitzen den eguna hartuko da hobariaren bukaera-datatzat.-

III.- SORTZAPENA.

20. Artikulua.

1. Zerga urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortzen da.-
2. Zergapeko ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisikoek, ekonomikoek edo juridikoek hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak.-

IX.- ZERGAREN KUDEAKETA.-

20. Artikulua.- Aldakuntza fisiko, ekonomiko edo juridikoak.-

Bat. Zergapeko higiezinetan aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikorik gertatuz gero, aldaketa horiek hurrengo zergaldian izango dituzte ondoreak.-

Bi. Aldakuntzak higiezinaren balioa aldarazten duenean, katastro balioa higiezinaren egoera berrira moldatu baher da, eta horretarako foru arau honetako 15. Artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.-

Hiru. Baldin eta Administrazioak ezin zehaztu izan badu ondasun baten katastro-balioa norbanakoak foru arau honetako 23. Artikuluan ezarritako aitortu beharra bete ez duelako, haren jakin bezain laster katastro-balioa zeharztuko du eta norbanakoari jakinaraziko dio, eta balio berriak aldakuntza gertatu eta hurrengo ekitaldian izango ditu ondoreak.- Hala gertatzen denean, eta beti ere preskribatutako aldia igaro baino lehen, udalek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ziozko kuota atzeratuak likidatu eta bildu ahal izango dituzte edo, bestela, katastro-balio berriaren ondoriozko gaindikina, berandutza-korrituak gehituta.-

Lau. Halaber, aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar da katastro-balioa aldakuntzaren berri aitortzearen eman beharra berandu bete delako ezin zehaztu denean ere, baldin eta Administrazioak katastro-balio berria aitortzea egin eta hurrengo sei hilabeteetan jakinarazi badu.- Epealdi hori igarotakoan, katastro-balio berriak jakinarazi eta hurrengo urtean izango dituzten ondoreak.-

21. Artikulua. Errolda.-

Bat. Zerga kudeatzeko errolda egingo da urtero udalerriz guztietan.- Errolda horretan ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta katastroko balioen zentsuak egingo dira, landalurrekoak eta hirilurrekoak bereizita.- Errolda jendearen eskueran egongo da udaletxean.-

Bi. Zergaren erroldan Ondasun Higiezinak gaineko Zergaren kargapean dauden hirilurreko higiezin guztien zenbaki finkoak agertu behar dira.-

Hiru. Ondasun-Higiezinak gaineko Zergaren ordainagiritan urteko erroldako datuak agertu behar dira.-

22. Artikulua.- Higiezinak aldakuntzen berri eman beharra.-

Bat. Subjektu pasiboak jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote zerga honen kargapean dauden ondasunak dauden udalari arauz ezartzen diren epeetan:

- a) Ondasuna eraikuntza berri bada, alta aitortzea egin behar dute.
- b) Zerga honen kargapean dauden ondasunak eskualdatzen direnean, eskuratzailerak altaren aitortzea aurkeztu beharko du, eskualdatzearen zioa azaltzen duen agiriarekin batera; era berean, eskualdatzailerak bajaren aitortzea aurkeztu beharko du, eta bertan adieraziko dira eskuratzaileraren izena eta egoitza, ondasunen mugak eta kokaera, eskualdatzearen data eta eskualdatzearen kontzeptua.-

Eskualdatzearen data eta eskualdatzearen kontzeptua.

Eskualdatzea "mortis causa" agintzaren baten zioz egiten bada, ezarriko den epea Oinardetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik aurrera zenbatuko da, eta jaraunsleak egin beharko ditu bi aitortpenak, altarena eta bajarena.

c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldarezpen fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz gerta litezkeen aldaketa guztien aitortpena egin beharko da.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako aitortpena ez aurkeztea, edo ezarritako epez aurkeztea, zergen arloko urratze soila izango da.-

Hiru. Subjektu pasiboek aurreko 1. Idatz-zatian aipatu diren eskualdaketa edo aldarapen guztien aitortpena egin behar dute. Hala, bada, foru arau honetan araupeztatutako eran ondasun higiezinaren aldarazpenak agertarazteko agiri publiko edo pribatuak formalizatzen direnean, edo aldarazpenok direla-eta auzibideak nahiz administrazio-prozedurak instruitzen direnean, subjektu pasiboek frogatu egin behar dute ondasun higiezinak badutela katastroko identifikazioa, hau da, katastroko zenbaki finkoa, hiri-lurreko ondasunak direnean, edo poligonoaren eta lur-zatiaren katastroko aipamena, landa-lurreko ondasunak direnena.- Egiaztapen hori baimena emateko eta inskripzioak edo instrukzioak egiteko eskumena daukaten notario, erregistratzaile edo epai eta administrazio organo edo agintarien aurrean egin behar da, arauz ezarritako moduan.-

24. Artikulua. Katastro-datuak.

Bat. Higiezinaren Katastroetan gerta liteke datuak sartu, kendu edo aldatzea, katastroen berrikupenen ondorioz, edo katastroko balioen finkapen, berrikuspen zein aldarazpenak, ikuskaritzaren jarduketak edo aita eta berriemateak diral eta. Hori administrazio egintzat hartuko da, eta zergaren erroldaren aldarazpena ekarriko du. Erroldan Higiezinaren Katastroetako datuekin zerikusia duen aldarazpenen bat egiten bada, aldezturik katastroko datu horiek ere aldarazi egin beharko dira.-

Bi. Katastro-datuetan zerbait aldatuz gero, subjektu pasiboak administrazio egintzak jakinarazteko irizpide orokorren arabera jakinarazi behar du.

Hiru. Katastroa kudeatzen duen organoa ohartzen bada katastro datuak eta higiezinaren benetako egoera ez datozela bat eta horren zioa subjektu pasiboak aurreko artikuluan ezarritako aitortpena ez aurkeztu izana bada,

interesatuari jakinaraziko dio eta hamabost eguneko epea emango dio bidezko iruditzen zaizkion alegazioak aurkezteko. Epealdia igarotakoan, katastroa kudeatzen duen organoak alegazioak aztertuko ditu eta katastro-datuak aldatuko ditu ofizioz; gero aldaketa jakinaraziko dio subjektu pasiboari administrazio egintzak jakinarazteko irizpide orokorreari lotuz.

Aldaketek hurrengo zergaldian izango dituzte ondoreak Zergaren erroldan.

Lau. Hauexek hartuko dira administrazio berriematezat:

- Notarioek eta jabetzaren errigistratzaileek maiatzaren 22ko 77/1990 Foru Dekretua aldatu duen uztailaren 29ko 133/2002 Foru Dekretuko 32. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorri bidaltzen dituztenak.-
- Uztailaren 29ko 133/2002 Foru Dekretuko 32.artikuluko 2. Idatz-zatian xedatutakoa betez katastroaren kudeaketa agintzen zaien organoek bidaltzen dituztenak.-
- Udalek, foru sailek edo gainerako herri administrazioek arauak betetzeko kudeaketako, hirigintzako plangintzako edo disziplinako edo baterakuntzako agintzei buruz formalizaten dituztenak.-

Bost. Norbanakoek artikuluko honetako lehen, bigarren eta hirugarren idatz. Zatiatan deskribatutako egintzak aurkara ditzakete; horretarako birjarpenezko errekurtsioa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jar dezakete, zein bere epearen barruan.-

25. Artikulua.- Zergaren kudeaketaren eskumena.-

Bat. Ordainerazteko ahalmena, kudeatzekoa, likidatzekoa, ikuskatzekoa eta biltzekoa, hala borondatezko aldirian nola premiamendu bidean, Zergaren kargapeko ondasunak dauden udalerriko udalari dagozkio, baita Zergaren kudeaketarako emandako egintzak berrikusteko ahalmena ere.-

Bi. Hain zuzen, gazorrak zehazteko likidazioak egitea, kobrantzako agiriak ematea, zor izan ez diren sarrerak itzultzeko espedienteak ebaztea, egintza horien aurka aurkezten diren errekurtsioak ebaztea, eta zergadunei paragrafo honetan bildutako gaiei buruzko informazioa ematea.-

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetan araupetutako salbuespen eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, beti ere, eskudun udalak emandako ebazpena helarazi beharko zaio Foru Aldundiari.-

Hiru. Udalek Bizkaiko Foru Aldundiari eskuordetu ahal izango dizkiote aurreko bi zenbakietan azaldutako eginkizun batzuk edo guztiak, arauz ezartzen den bezala.-

Lau. Zergaren ordainketa errazteko, udalek ekitaldian zehar zatika dezakete; hala eginez gero, ez dute eskatuko ez berandutzakorriturik, ez bermerik jartzerik.-

Bost. Udalek kobrantza-agiri bakarrean bil ditzakete subjektu pasibo beraren zerga-kuota guztiak beraren landalurreko ondasun guztiak udalari berean daudenean.-

26. Artikulua.- Katastroaren eta erroldaren kudaketaren eskumena.-

Bat. Errolda prestatzea eta lurraren mugaketaren aurreko balio ponentziak prestatzea eta onestea Bizkaiko Foru Aldundiaren ez beste inoren eskumenekoak dira, bai eta katastro-balioak finkatzea, berrikustea, aurreko eginkizun horietako batzuk udalei eskuordetu ahal dizkie Bizkaiko Foru Aldundiak; hala gertatzen bada, arau bidez zehaztuko da.

Bi. Hala ere, aurreko eginkizun horietako batzuk udalei eskuordetu ahal dizkie Bizkaiko Foru Aldundiak hala gertatzen bada, arau bidez zehaztuko da.-

Hiru. Higiezinen katastroak prestatzea, artatzea, berritzea, berrikustea eta berezko dituzten gainerako eginkizun guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren ez

beste inoren eskumenekoak dira eta Katastro eta Balorazio Zerbitzuak egingo ditu, beraz zuzeneak zein udalekin edo bestelako toki izakiekin lankidetzahitzarmenak sinatuz; hitzarmenak arau bidez zehaztuko dira.-

Lau. Katastroak Bizkaiko Foru Aldundiak ikuskatu ditu; nolana ere, udalekin lankidetzan aritzeko formulak ezar ditzake; hala gertatzen bada, arau bidez zehaztuko dira.-

27. Artikulua. Informazioa eman beharra.-

Bizkaiko Lurralde Historikoan eskumena edo jurisdikzioa duten notario, erregistratzaile eta epai zein administrazio organo eta agintariek, foru arau honetan araupetutako eran ondasun higiezinetan egindako aldarazpenak agerian jartzen dituen egintza, negozio edo prozeduraren bat aurkezten zaienean, higiezinaren identitatea behar bezala frogatu dadila eskatu behar dute, hau da, katastroko zenbaki finkoa adierazi dadila, hiri ondasunak badira, edo poligonoaren eta lur-zatiaren katastroko aipamena, landa ondasunak badira. Hori arauz ezarritako eran egingo dute, ondasunetan eragina duten egintza edo negozioen eta Landa-lurreko eta Hiri-lurreko Higiezinaren Katastroaren arteko koordinazioa ziurtatu eta hobetzeko.-

28. Artikulua. Katastroari laguntzeko betebeharrak.-

Bat. Pertsona natural zein juridiko guztiek, publikoek zein pribatuek, katastroari lagundu behar diote, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 112. Artikuluan ezarri den bezala. Hori dela eta, beste pertsona guztiekin dituen erlazio ekonomiko, lan-erlazio edo finantza-erlazio guztietan biltzen dituen datu, txosten eta aurrekarietatik zerga-ordainketan jeragina izan dezaketenak jakinarazi behar dizkio, hau da, Higiezinaren Katastroko datu fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak eratzeko, mantentzeko eta eguneratzeko baliagarri izan daitezkeenak.-

Bi. Herri administrazioek, oro har, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 113. Artikuluan aipatutako gainerako erakundeek katastroa sortzeko eta mantentzeko baliagarri izan daitezkeen datu eta aurrerakin guztien berri eman behar Katastro Zerbitzuari, aurrean aipatutako artikuluan ezarri den bezala,

berariazko agindeia egiten zaienean edo xedapen orokorrek hala eskatzen dutenean.-

X. XEDAPEN ERANTSIAK.-

Lehenengoa.- Udal mugarteren bat aldatzen bada, harik eta beste balio-ponentzia bat onetsi edo dagoena aldatu arte katastro-balioak ezartzeko araubide zaharrak bere hartan iraungo du udal mugartez aldatu diren ondasun higieziari dagokienez. Horrelako kasuetan udalek lehengo udalerrian indarrean egon den karga-tasa aplikatuko diete udal mugartez aldatutako ondasun higieziari, beste bat ezartzea erabaki ezean, Ondasun Higieziaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauko 16. Artikuluan ezarri denaren arabera.-

Bigarrena.- Katastro-balioa eta merkatu-balioa ahalik ongien bateratzeko, katastro-balioa finkatu, berrikusi edo aldatu behar denean arauz ezartzen den koefizientea aplikatuko zaio ponentziako balioari.-

Hirugarrena.- Egotzi beharreko gutxieneko balioa hiri-lurreko ondasun higieziaren erabilieretara hedatu ahala, haien katastro-balioa zehaztuko da, bidezkoa denean, foru arau honetan araupetutako prozedurei lotuz; horretarako, egotzi beharreko gutxieneko balioa kalkulatzeko erabilitako balorazio-teknikak eta balio-koadroa hartuko dira erreferentziatzat.-

XI. XEDAPEN IRAGANKORRA.-

1.- Hirin ondasun higieziari dagokienez, zerga Hirilur Kontribuziorako 1990.eko urtarrilaren 1ean idarrean dauden katastroko balioak aplikatuz exijituko da, beraiek honako Ordenantza honetako xedapenen arabera finkatzen ez diren artean.-

2.- Landa ondasun higieziari dagokienez, zerga, aurreko pasarteko zirkunstantzia berberetan, ondasun horien katastroko balioak 1990eko urtarrilaren 1ean Landalur eta Abere Kontribuziorako indarrean dauden oinarri likidagarrien zenbatekoa %3an kapitalizatzeko emaitza aplikatuz exijituko da.-

3.- Ordenantza honetako 18. Artikuluan ezarri hobariaz baliatzeko epea, urbanizazio eta eraikitze lanak Zerga hau aplikatzen hasi aurretik hasiak izan diren kasuetan, aipatu lanen hasiera dataren eta zerga indarrean sartze-dataren artean iragandako urte kopuruz gutxitzeko da.-

4.- Zerga honen indarrean sartzedatan Landalur eta Abere Kontribuzioan hobari fiskalen bat dutenek, Ondasun Higiezin gaineko Zergan hobari berberak edukitzen jarraituko dute harik eta azkendu arte, eta, erabiltzeko amaierarik ez balute, 1992. Eko abenduaren 31 ra arte, berau barne.-

5.- 1.992eko abenduaren 31ra arte egindako eraikinek, Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako buruzko legeriaren itzalpean, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kuotaren %50 hobaria izango dute 3 urtetan zehar, eraikuntza amiatutako den datatik konturik.-

6.- 7/2003 Foru Araua indarrean jartzean aintzatetsitako Ondasun Higiezin gaineko Zergarekiko zerga-onurei, zerga-onura horiek erabiltzeko baldintzak zeintzuk diren arau horretan jasota daudela, eutsi egingo zaie eta, aurretik eskatu baldin badira, ez da beharrezkoa eskabidea egitea.- Onura horiei iraungipen-datara arte eutsiko zaie.-

7.- Foru arau honek edo zergei buruzko ordenantzek sartutako aldaketen ondorioz, ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zerga-zorren osagaiek izan ditzaketen aldakuntzak, ediktu bidez jakinaraziko dira, denak batera, eta ez da beharrezkoa izango haiek banan-banan jakinaraztea.- Horrek 2004.urterako bakarrik izango ditu ondorioak.-

XII.- AZKEN XEDAPENA.-

Ordenantza hau, behin betiko onartuta, 2010eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du, aldatzeko edo indar gabe uzteko erabakia hartu arte.-

.....

EKONOMI JARDUEREN GAINKO ZERGA.- ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-

I.- XEDAPEN OROKORRAK.-

1.- Artikulua.-

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalak honako ordenantza honen arabera eskatuko du Ekonomi Jardueren gaineko Zerga. Ordenantza honen ataletariko batean, eranskinean hain zuzen , establezimenduak Arrankudiagako udalerrian duten kokaera fisikoaren haztapena ageri da, eta bai kalean zerrenda ere, kategoriaren arabera ordenatuta.-

2.- Artikulua.-

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.-

II.- ZERGA EGITATEA.-

3.- Artikulua.-

1. Zerga egitatea Arrankudiagako udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea da, lokal jakin batean egin zein ez, eta Zergaren tarifetan zehaztuta egon zein ez.-

2. Zerga honen ondoreetarako, enpresa jardueratzat joko dira abeltzaintzako jarduerak, lokabeak direnean; baita meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzakoak ere. Beraz, ez dira multzo horretan sartzen nekazaritzako jarduerak, inoren menpeko abeltzaintza jarduerak, basogintzakoak eta arrantzakoak, eta horietatik bakar bat ere ez da zerga egitatea.-
3. Aurreko zenbakian ezarri denaren ondoreetarako, abeltzaintza lokabetzat joko da ondoko kasuetako batean dauden abelburu multzoen ustiapena:
 - a) Jabeak ez nekazaritzarako ez basogintzarako erabiltzen ez dituen lurretan gehienbat bazkatzen direnak.
 - b) Landalurreko finketatik kanpoko kortan daudenak.-
 - c) Azienda transhumantea edo transterminantea.-
 - d) Haztegian bertan ekoitzi ez diren pentsuez elikatzen den azienda.-

4. Artikulua.-

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jarduertzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar ditueneko ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.-
2. Zergapeko jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.-

5. Artikulua.-

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onar daitezkeen edozein modu erabiliko da eta, bereziki, Merkataritzako Kodearen 3. Artikuluan ezarri diren bideak.-

6. Artikulua.-

Jarduera honek ez daude zergapean:

1. Enpresen aktibo finkoan sartuta dauden ondasunen besterentzea, bet ere ondasun horiek ibilgetu moduan era egokian inbentariatuta egon direnean eskualdaketaren aurretik, urte bi baino lehenagotik; halaber, ez da zergapekoa izango saltzaileak erabiltzeko izan diren ondasun pribatuen salmenta, baldin eta goian adierazi den epean erabili baditu.-
2. Nork bere lanaren edo lanbide zerbitzuen ordainetan jasotzen dituen ekoizkinen salmenta.
3. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren gaien erakusketa.- Bezeroen oparirako diren gaien erakusketa, ostera, zergapean dago.-
4. Txikizkako salmenta denean, ekintza bakarra edo eragiketa soltea egitea.-

IV. SALBUESPENAK.-

7. Artikulua.-

1.- Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira:

- a) Estatua, Euskal Ekonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta toki erakundeak, eta haien erakunde autonomo administratiboak.-
- b) Nazioarteko itun edo hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.-
- c) Gizarte Segurantzaren eta indarreko leeriaren arabera eraturiko mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.-
- d) Ikerketa-erakunde publikoak eta maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, toki erakundeen edo ongintza herri onurako izendapena duten fundazioen funtsez baizik mantentzen ez direnak, eta irabazteko asmorik gabe hezkuntza-itunpean diharduten maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, baita ikasleei liburu eta salbuespen moduan establezimenduan bertan saldu irakaskuntza tailerretako ekoizkinak, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo

establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.-

- e) Urritu fisiko, psikiko edo zentzumenezkoen elkarte edo fundazioak, irabazteko xederik ez dutenean, burutzen duten jarduera pedagogikoa, zientifikoa, laguntzako eta enpleguaren alorrekoa denean eta minusbaliatuen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babes eskuratzeko direnean, nahiz eta helburu horietarako dituzten lantegietan ekoizten diren ekoizkinak saldu, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.-
- f) Gurutze Gorria eta arauz zehzten diren antzeko beste erakunde batzuk.-
- g) Jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak, jarduera hasi eta zerga honen lehenengo bi zergaldietan.-

Ondare hauetarako, jarduera bat ez da hasitzat joko lehenago beste titulartasun batekin egin bada; esaterako, bategitea, bereizketa edo jarduerarloan baten gehikuntza gertatu bada.-

- h) Urteko eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beharekoa duten subjektu pasiboak.-
Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokionez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplika dezakete, baldin eta eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beharkoa badute. Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa da subjektu pasiboek ez edukitzea %25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 59 eta 60. Artikuluetan, hurrenez hurren, aipatutako arrisku kapitaleko funtsak edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak direnean, eta partaidetza hori sozietatearen xedearen betekizunaren ondorio denean.-

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1go. Eragiketa bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. Artikuluko 7. Idatz- zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.-

2gna. Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauxe izango da: aitorpne zerga-zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. Artikuluan aipatutako sozietate zibilen eta erakundearen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sartu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da.- Zergaldia urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3gna. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.-

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. Artikuluaren arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundearen multzoari egokituko zaizkio.- Era berean ezarriko da irizpide hau pertsona fisiko batek bakarrik edota bigarren gradura arte, azkena ere barne, zuzeneko edo alboko ahaidetasun, odol-ahaidetasun edota ezkontahaidetasun lokarriez bat egindako beste pertsona fisikoeekin batera kide den beste erakunde batzuekin harremanak baditu Merkataritzako Kodearen 42. Artikuluko kasuak abenduaren 20ko 1.815/1991 Errege Dekretuak onetsitako urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetako lehenengo kapituluko 1. Atalean ezarritakoak direla ulertuko da.-

4gn. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen balumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaiena izango da.-

2. Aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan arautu diren onurak eskatu egin beharko dira eta, bidezkoak denean, alderdiak eskatu ondoren emango dira.-

IV.- SUBJEKTU PASIBOAK.-

8. Artikulua.-

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak eta juridikoak eta Bizkaiako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. Artikuluan aipatutako erakundeak, baldin eta zerga egitatea sortzen duten jarduetariko bat Arrankudiagako udalerrian egiten badute.-

Aurreko idatz-zatiko a), b), c) eta f) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitorpena.-

V.- ZERGA KUOTA.-

9. artikulua.-

Zerga kuota izango da Zergaren tarifak foru arau honetan eta berau osatzen eta garatzen duten xedapenetan adierazitakoaren arabera eta foru arauetan eta ordenantza fiskaletan zein honako ordenantza honetan ezarritako koefizienteak, indizea eta hobariak aplikatuz sortzen den emaitza.-

10. Artikulua.-

Zergaren tarifak apirilaren 30eko 1/1991 Araugintzako Foru Dekretuan ezarritakoak izango dira.-

11. Artikulua.-

Tarifa horien gain aplikagarriak izango dira, hurrenez hurren, eragiketa bolumenaren araberrako haztapen koefizienteak, koefiziente bakarra eta establezimenduak udal mugartean duen kokaera fisikoaren haztapen indizea.-

1. Eragiketa bolumenaren araberradko haztapen koefizienteak:

Zergaren tarifetan finkatutako udalerriko gutxieneko kuotak gehitzen dira haztapen koefizientea aplikatuz; koefiziente hori subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren arabera zehaztuko da.-

Zergaren tarifetan finkatutako probintziako eta Estatuko kuotei haztapen koefizientea ere aplikatuko zaie.-

Aurreko tarifetan finkatutako probintziako eta Estatuko kuotei haztapen koefizientea kalkulatzeko, honako taula hau erabiliko da:

Eragiketa bolumena (euro) Koefiziente.-

2.000.000,00 – 6.000.000,00 bitartean 1,20.

6.000.000,01 – 10.000.000,00 bitartean 1,22.

10.000.000,01 – 50.000.000,00 bitartean 1,24.

50.000.000,01 – 100.000.000,00 bitartean 1,27.

100.000.000 baino gehiago 1,30.

Bat ere ez 1,25 .

Idatz-zati honetan aipatutako koefizientea aplikatzeko, subjektu pasiboaren eragiketen bolumena berak egindako ekonomi jarduera giztiena izango da; 7/2003 Foru Araua 5. Artikuluko 1. Idatz-zatiko h) letran ezarritakoaren arabera zehaztuko da.-

2. Koefiziente bakarra:

Aurreko idatz-zatian araupetutako koefizientea aplikatuz gehitutako kuotak gehituko dira, udal mugarteko jarduera guztiei koefiziente bakarra aplikatuz. Aipatu den koefizientea bakarra izango da, hau da, 1.7.

3. Kokapen indizea:

Aurreko idatz-zatietan araupetutako koefizienteez gainera, koefiziente horiek aplikatuz aldatutako kuotetan, lokala udalerrian dagoen tokiaren arabera (kalearen kategoriairen arabera, alegia) aplikatuko diren haztapen indizeen eskala ere ezar dezakete.-

- Bakiola: 1,4.
- Arbide: 1,3.
- Gainerakoa: 1.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA.-

12. Artikulua.-

1.- Zergaldia egutegiko urtea bera izango da, salbu eta alta aitortpenak direnean, horrelakoetan jarduera hasten den egunetik egutegiko urtea amaitu artekoa izango baita, artikulua honetan 3 idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.

2.- Zergaldiko lehen egunean sortuko da zerga, eta kuotak ezin izango dira txikitu, salbu eta, alta aitortpenen kasuetan, jardueraren hasierako eguna egutegiko urtearen lehen eguna ez denean, horrelakoetan kuotak urtea amaitzeko egutegiko urtetik falta diren hiruhilekoen, jarduera hasi den hiruhilekoa barne, kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira eta.-

3.- Baja aitortpenetan, kuotak bajaren egunera arte, zergapeko jarduera amaitu den hiruhilekoa barne, igarotako hiruhilekoen kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira, salbu eta jardueraren amaiera alta aurkeztu den ekitaldian gertatzen denean, horrelakoetan bajak hurrengo urteko lehen egunetik izango baititu ondorioak.-

4.- Ikuskizunak direnean, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarritako eran aurkeztu beharko dira.-

VII. KUDEAKETA.-

23. Artikulua.-

1. Zergaren kudeaketa matrikula egiten denean hasiko da. Matrikula urtero egingo da eta zentsuen bidez osatuko da; zentsu horietan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak eta zerga zorrak azalduko dira, eta behar denean foru errekgua ere bai. Matrikula jendearen eskura egongo da Udaletxean.-
2. Subjektu pasiboek alta aitopenak aurkeztu beharko dituzte, arau bidez ezartzen den epean; aitopen horietan aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera matrikulan sartu beharreko elementu guztiak adierazi beharko dituzte. Jarraian, eskumena duen administrazioak likidazioa egingo du; likidazioa subjektu pasiboari jakinaraziko zaio eta, hark, behar den sarrera egin beharko du.-

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epeetan eta zehazten den bezala.-

Hain zuzen ere, foru arau honetako 5. Artikuluko 1. Idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena. Orobat, eragiketen bolumenean aldaketaren bat gertatuz gero, subjektu pasiboek horren berri eman behar dute, baldin eta aldaketak eragiketa bolumenaren araberrako haztaper koefizientearen aplikazioarako kontuan hartu beharreko tartean zerbait aldarazten badu (aplikatu ahal zaie, aukeran, udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboei, eta derrigorrez aplikatu behar zaie probintziako eta Estatuko kuota ordaintzen dutenei).-

3. Zerga ikuskalaritzaren edo alden zein berriemateen formalizazioaren emaitzeko zentsuetan datuak sartzea edo haietako datuak kentzea edo aldatzea administrazio egintzatzat joko dira eta zentsuaren aldarazpena ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa orok, zentsuetan dauden datuak ukitzen baditu, nahitaez, alde z aurretik zentsu horiek modu berean aldaraztea eskatuko du.-
4. Zerga hau autolikidazio araubidean eskatu ahalko da, arau bidez ezartzen den eran.-

24. Artikulua.-

1. Zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko (borondatezko epealdian zein premiamendu bidez) ahalmenak Udalarenak dira.-
2. Udalaren ahalmenak dira beren beregi, matrikula jendaurreratzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zerga honen alorrean zergadunari eta informazioa emateko jarduketak egitea.-
3. For Aldundiaren egitekoak dira matrikula osatu eta artatzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea eta kuotak ezartzea.-

Hala ere, Foru Aldundiak nahiz udalek egin ditzakete egintza horien jakinarazpenak, bai eta zerga zorrak zehazteko likidazioen jakinarazpenak ere.-

4. Udalaren ardura da ordainagiriak egitea, baina horrek ez du ezertan eragotziko Toki Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 8. Artikuluan azaltzen diren lankidetzak formulak erabiltzea.-

Udala eta Foru Aldundia lankidetzan arituko dira zergaren matrikula osatzeko eta artatzeko; halaber, batera jardungo dute jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko orduan.-

5. Salbuespenak emateko edo ukatzeko beti beharko da Foru Aldundiaren txosten teknikoa; horri buruz hartzen den ebazpenaren berri jakinarazi beharko zaio Foru Aldundiari.-

25. Artikulua.-

Jarduerak sailkatzeko eta kuotak ezartzeko egitezen aurkako errekurtsio eta erreklamazioak direla eta, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 156 eta 168 bitarteko artikuluetan xedatutakoa beteko da. Bizkaiko Foru Aldundia izango da horrelako errekurtsio eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna.- Errekurtsio edo erreklamazioa jarrita ere agintzaren betearazpena ez da etengo.-

26. Artikulua.-

1. Foru Aldundiak egingo du matrikula eta Udalari igorriko dio.-
2. Behin matrikula jaso eta gero, Udalak jendaurrean azalduko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek aztertu ahal dezaten eta bidezko deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.-

27. Artikulua.-

1. Jendurreko azalpen epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzaren ziurtagiria Foru Aldundiari igorriko zaio onets dezan.-
2. Behin onetsita, udalek ordainagiriak egingo dituzte (lankidetzarako arauen kalterik gabe).-

XEDAPEN IRAGANKORRA.-

Lehenengoa.- Zerga hau indarrean jartzen den egunean Merkataritza eta Industriako Jardueren Zerga Lizentzian edo Lanbide eta Arte Jardueren Zerga Lizentzian onuraren bat dutenek onura hori izango dute aurrerantzean ere lehenengo aipatu dugun zergan, harik eta onura iraungi arte edo, onurak amaiera-egunik eduki ezean, 1994ko abenduaren 31ra arte, egun hori barnean dela.-

Bigarrena.- Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren subjektu pasiboei dagokienez, 7/2003 Foru Araua Indarrean jartzean bertan ezarritakoaren arabera hura ordaindu beharretik salbuetsita ez daudenek jarduera bati ekitearen ziozko hobaria, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifak eta jarraibideak onetsi dituen apirilaren 30eko 1/1991 Araugintzako Foru Dekretuko Tarifen bigarren ataleko 1. Denentzako oharrean araupetutakoa, aplikatu badute euren kuotan, hobari hori aplikatzen jarraitu ahal izango dute, aipatutako baterako oharrean ezarritakoari lotuz, harik eta hobariaren aplikazioaldia amaitu arte.-

Hirugarrena.- 7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko bertan ezarritakoa, hots, lehengo arauen arabera eraenduko dira.-

Laugarrena.- Foru arau honek edo ordenantza fiskalek egindako aldaketaren bat dela zio ordainagiri bidez kobratzen diren zerga-zorren elementuetan zerbait aldatzen bada, taldeka jakinaraziko da ediktu bidez eta ez da egongo banaka jakinarazi beharrik; honek 2004. Urtean soilik izango ditu ondoreak.-

AZKEN XEDAPENA.-

Ordenantza honen aldaketa behin betiko onetsita, 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.-

.....

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ARAUPETZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-

I. XEDAPEN OROKORRAK.-

1. Artikulua.-

Udal honek, Bizkaiako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga eskatzen du honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.-

2. Artikulua.-

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.-

II. ZERGA EGITATEA.-

3. Artikulua.-

Hauexek dira Zergaren zerga-egitateak:

1. Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.-
2. Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatu dena, baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turisko-matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.-
3. Jarraikoak ez daude Zergaren kargapean:
 - a) Antzinasuna dela-eta erregistroan baja emanda egonik, aparteko kasuetan erakustaldietan, lehiaketetan eta lasterketetan ibiltzeko baimena jaso lezaketanak, horretara mugaturik daudela.-
 - b) Trakzio mekanikodun atoiak eta erdiatoiak, zama erabilgarria 750 kg baino gutxiagokoa dutenak.-

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK:

4. Artikulua.

1. Zergatik salbuetsita egongo dira:
 - a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki-erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.-
 - b) Atzerriko herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul-bulegoetako kideen, eta kreditatuta dauden agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdiko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.-
Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionarioak edo kideenak.-
 - c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.-
 - d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako ibilgailuen Araudi Orokorreko II. Eranskineko A letran adierazitakoak; eta minusbaliodunen

izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko diren ibilgailuak.- Salbuespena inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, urrituek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.- Letra honetan xedatutakoaren ondoreetarako, minusbalioduntzat hartuko dira legez %33ko elbarritasuna edo elbarritasun handiagoa duten pertsonak.-

Idatz-zati honetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.-

Hemen ezarrita dauden salbuespenak arautuak dira, eta erreguzko izaera dute.- Salbuespenok eskumena duen udal-organoak emandako administrazio-egintza adieraziaren bidez emango zaizkie eskutatutako betekizunak betetzen dituzten subjektu pasiboiei, haiek eskabidea egin ondoren.- Eskabide horretan, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia jaso beharko dituzte, horrekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Zirkulazioko baimenaren fotokopia.-
- Elbarritasuna egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiak edo beste organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboa aurkeztea.-
- Zinpeko aitortpena, ibilgailua minusbaliodunak ez beste inork erabiliko duela adieraztekoa.-

Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.-

7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko salbuetsita egon diren ibilgailuetatik foru-arau honek artikulatu horri emandako testu berrian ezarritako betekizunak salbuespena aplikatzeko izango dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.-

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak: ez du atzeraeraginik.- Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.-

f) Hirko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.-

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.-

2. Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte.- Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeke agiria emango zaio interesatuari.-
3. Ehuneko ehuna hobaria egongo da ibilgailu historikoentzat, edo gutxienez hogeita bost urte dituzten ibilgailuentzat, fabrikazio-egunetik zenbatuta, Fabrikazio-eguna jakiterik ez badago, lehenengo matrikulazioaren eguna hartuko da fabrikazio-eguntzat, edo, horren ezean, dena delako ibilgailu-mota edo-aldaera fabrikatzeari utzi zitzaien eguna.-

IV.- SUBJEKTU PASIBOAK.-

5. Artikulua.-

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. Artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.-

V. KUOTA.-

6. Artikulua.-

1. Zerga tarifa taula honen arabera eskatuko da: 1.-

Gutxien.- Ibilgailuaren potentzia eta mota kuota kuota koefizient. Guztira.

(euro) (euro)

a) Turismoak:

- 8 zerga-zaldi baino gutxiago: 20,62 euro.-

- 8-11,99 zerga-zaldi : 48,65 euro.-
- 12-13,99 zerga-zaldi: 102,16 euro.-
- 14-15,99 zerga-zaldi: 127,66 euro.-
- 16-19,99 zerga-zaldi: 151,51 euro.-
- 20 zerga-zaldi baino gehiago: 185,18 euro.-

b) Autobusak:

- 21 plaza baino gutxiago: 16,39 euro.-
- 21-50 plaza: 180,01 euro.-
- 50 plaza baino gehiago: 225,01 euro.-

c) Kamioiak:

- 1000- kg-tik beharako zama erabilgarria : 63,95 euro.-
- 1000-2999 kg bitarteko zama erabilg.: 126,39 euro.-
- 2999-9999 kg bitarteko zama erabilg.:180,01 euro.-
- 9999 kg-tik gorako zama erabilgarria : 225,01 euro.-

d) Traktoreak:

- 16 zerga-zaldi baino gutxiago: 26,81 euro.-
- 16-24,99 bitarteko zerga-zaldi: 42,14 euro.-
- 25 zerga –zaldi baino gehiago: 126,39 euro.-

e) Trakzio-mekanikodun atoiak eta erdiatoiak:

- 1000 kg-tik beherako zama erabilgarria: 26,81 euro.-
- 1000-2999 kg bitarteko zama erabilg.: 42,14 euro.-
- 2999 kg-tik gorako zama erabilgarria: 126,39euro.-

- **f) Beste ibilgailu batzuk:**

- Ziklomomotorrak: 6,72 euro.-
- 125 cc arteko motozikletak: 6,72 euro.-
- 125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko: 11,48 euro.-
- 250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko: 22,99 euro.-
- 500 cc baino gehiagotik 1000 cc arteko: 45,97 euro.-
- 1000 cc-tik gorako motozikletak: 91,91 euro.-

2. Ibilgailu-mota zehazteko, arau bidez ezartzen denari jaramon egingo zaio, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkenak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe.- Furgonetengatik, turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik: Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidari barne, garraiatzeko gaiturik badago, Zergak autobusa balitz bezala kargatuko du.-

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, Zergak kamioia balitz bezala kargatuko du.-

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradaren edukieraren arabera ordainduko da Zerga.-

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, Zergak aldi berean eta bereiz kargatuko ditu arraste-indarra duen ibilgailua eta hark herrestan daramatzan atoiak eta erdiatoiak.-

d) Edukiera dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatzen hasten denetik, kasuan kasukoa.-

e) Makina autopropustatuengatik, alegia, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman gabe herri-bidetik berez ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozken tarifak kobratuko dira.-

f) Nolanahi ere, tarifetako D) letran agerten den “traktore” izen orokorrak barne hartzen ditu hala kamioi traktoreak nola “obra eta zerbitzuetako traktoreak”.-

g) Zaldipotentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da, eta Ibilgailu Araudi Orokorrean, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikulua segituz, V. Eraskinean agindutakoa kontutan hartuta.-

VI. ZERGALDIA ETA SORTZEPENA.-

7. Artikulua.-

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere, horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunak hasiko da, edo ibilgailuari Trafiko Burutzan baja ematen zaion egunean amaituko da, horrenez herren.-
2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.-
3. Ibilgailuen lehen eskuraketa denean, edo haien bajaren kasuan ere, kuotaren zenbatekoa egutegiko hiruhilekoen arabera hain banatuko da, alta edo baja gertatzen den datari dagokiona barne.-

Halaber, kuota hain banatuko da ibilgailua aldi baterako baja emanda badago, lapurtu edo ebatsi dutelako; hori guztia aldi baterako baja dagokion erregistroan jasotzen den unetik hasita.-

VII KUDEAKETA.-

8. Artikulua.-

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.-

9. Artikulua.-

Udalak autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.-

10. Artikulua.-

Zerga ordaindu delako frogagiria Udal Administrazioak emandako ordainagiria izango da.-

11. Artikulua.-

1.- Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenek, aldez aurretik Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute.- Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.-

2.- Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Burutzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoretarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.-

3.- Trafiko-burutzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdaketei buruzko espedienterik aldez aurretik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.-

Matrikulazio berrietan, edo ibilgailuari egindako aldaketek zerga-ondoreetarako kalifikazioa aldatzen dutenean, interesatuek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote Udal Administrazioari, Zergaren matrikulari eransteko, 30 eguneko epean, matrikulazioa edo aldaketa egiten den egunetik hasita:

- a) Zirkulazio baimena.-
- b) Ezaugarri teknikoaren ziurtagiria.-
- c) NAN edo IFK.-

VIII.- XEDAPEN IRAGANKORRA.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jartzen den egunean ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan mota bateko nahiz besteko zerga-hobariaren bat dutenek hobariak onuratzeko segituko dute aipatutako zerga horri dagokionean, hobaria iraungitzen den egunera arte, edo, hobariaren onurak mugaegunetik ez bazu, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne dela.-

IX.- AZKEN XEDAPENA.-

Ordenantza hau behin betiko onetsita, 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.-

.....

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN
DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-**

I. XEDAPEN OROKORRAK.-

1. Artikulua.-

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga hori honako ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera eskatuko du.-

2. Artikulua.-

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.-

II. ZERGA EGITATEA.-

3. Artikulua.-

Hirigintzako obretarako lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga egitea, lizentzia hori jaso nahiz ez jaso, baldin eta lizentzia ematea udal honi badagokio.-

4. Artikulua.-

Besteak best, honako hauek zergapeko agintzak dira:

1. Mota guztietako eraikin edo instalazio berriak egiteko obrak.-
2. Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.-
3. Egitura ukitzen duten aldaketak edo berrikuntza obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.-
4. Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.-
5. Eraikinaren barruko taxuera aldatzen duten obrak, edozein dela ere eraikin edo instalazioetan.-
6. Behin-behinean egin behar diren obrak, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 17. Artikuluan aipatzen diren horiek.-
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.-
8. Lur mugimenduak, besteak beste lur erauzketak, hondeaketak eta betelanak, salbu eta horrelako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehazturik eta programaturik dadudenean.-
9. Eraikuntzak erraustea, hur-hurreko aurriaren deklarazioa dutenak izan ezik.-
10. Lurpeko instalazioak: aparkalekuak, industria, meerkataritza edo lanbide jardueretarako instalazioak, zerbitzu publikoenak, edo lurrazpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.
11. Propaganda kartelak herri bideetatik ikusteko eran jartzea.-
12. Ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, erakuntza eta instalazio guztiak, baldin eta obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar badute.-

5. Artikulua.-

Ez dira egongo zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntza, obra eta instalazioak, baldin eta obraren jabea Udala bera bada.-

III. SALBUESPENAK.-

12. Artikulua.-

1. Zerga ordaindu beharrik salbuetsita daude Estatuaren, autonomia erkidegoen edo Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo toki erakundeen jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrak, baldin eta horri lotuta badaude, zuzenean errepide, trenbide, portu, airportu, obra hidrauliko, biztanleguneen saneamendu eta horien hondakin uren saneamendurako izango badira; hori horrela da kudeaketa erakunde autonomiadunek egin arren, hala inbertsio berriko obrak direnean nola artapenekoak direnean.-
2. Eliza Katolikoa, Estatuak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunean ezarritako moduan (2001eko ekainaren 5eko Aginduaren arabera; haren bidez argitzen de nola sartu den Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Estatu Espainiarrak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunaren IV. Artikuluko 1. Idatz-zatiko b) letran).-

IV. SUBJEKTU PASIBOAK.-

7. Artikulua.-

1. Ondorengoak dira, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. Artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obrak jabe direnak, haiek dauden higiezinaren jabe izan zein ez.-
2. Aurreko paragrafoaren ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.-
3. Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, beraren ordezkotako subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen dutenak edo hura egiten dutenak.-
4. Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.-

V. ZERGA OINARRIA.-

8. Artikulua.-

1. Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua da.-

Ez dira sartuko zerga oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez erakuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratariaren industri mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.-

2. Zerga oinarria, udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obraren kasuetan, Udal Administrazioak ezarritakoa izango da.-

VI. ZERGA KUOTA.-

9. Artikulua.-

Zerga kuota kalkulatzeko, zerga oinarriari karga tasa aplikatuko zaio, karga tasa %5 delarik.-

10. Artikulua.-

Aurreko artikuluan adierazitako moduan kalkulaturako kuotari Udalak hobari hauek ezarriko dizkio:

- a) %50era arteko hobaria gizarte-inguruabar, kultur inguruabar edo inguruabar historiko-artistiko bereziak direla eta edo enplegua sustatu beharra dela eta interes berezikotzat edo udalerrien onurakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.-

Kasu honetan udalerrirako aparteko interesa edo onura dauzkatena, ondorengoak dira:

- Birgaikuntza obrak (kanpokoaldkoak eta teiltatuak) katalogatuta dauden eraikinetan eta babes etxebizitzan, bai gaur egun indarrean dauden udal Arau Subsidiarioetan, 118.art. eta hurrengo udal Arau Subsidiarioen maila hauetan aertuko direnetan, berauen hasierako onespena egiten denetik .-
- b) Hobaria emango da, %50 a artekoa, abian den eguzki-instalazio termikoaren egiaztapenari buruz teknikari eskudunak emandako ziurtagiria edo erakunde eskudunak eginiko adierazpena aurkezten bada. Ziurtagiri horretan agertu behar da instalazioak badituela kolektore homologatuak energia ekoizteko.-
- c) Hobaria emango da, %80 artekoa, edozein eraikuntza, instalazio edo obra dela bide, lehendik dauden eraikin edo erikuntzetan oztopo arkitektonikoak kentzen badira.- Lehendik dauden oztopoak ezabatuko dituen eraikuntza, instalazio edo obra hori obra handiago baten parte bada, hobaria oztopo arkitektonikoak kenduko dituen eraikuntza, instalazio edo obrari aplikatuko zaio bakar-bakarrik.-

Oharra: Goian aipatu hobari guztiak aldi berean aplikatu ahal dira.-

VII. SORTZAPENA.-

11. Artikulua.-

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan geratuko da, lizentzia jaso ez bada ere.-

VIII. KUDEAKETA.-

12. Artikulua.-

Aginduzko lizentzia ernaterakoan behin-behineko likidazioa egingo da, zerga oinarria interesatuek aurkeztu duten aurrekontuaren arabera zehazturik, baldin eta aurrekontu horrek elkargo ofizial eskudunaren ikus-onespena bada; horrela ez bada, udal teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsian oinarriturik.-

13. Artikulua.-

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa berriz egiteko, aurrekontu aldatuak jatorrizkoa zenbateraino gainditzen duen kontuan hartuta.-

14.Artikulua.-

1. Behin eraikuntza, instalazioa edo obra amaitutakoan, eta haren benetako kostua kontuan hartuta, Udal Administrazioak, administrazio-egiaztapen egokia egin ondoren, aldatu egingo du zerga oinarria, hala behar denean; behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordainarazi edo itzuliko dio.-

3. Aurreko atalean ezarri denaren ondoretarako, obra bukatu edo behin-behinean jaso eta hurrengo hilabetean duen teknikariaren ziurtagiria aurkeztuko da, idatziz, Udal Administrazioak emango duen inprimikian.- Obra zuzendu duen teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, haren lanbide elkargoak ikus-onetsita, beharrezkoa izanez gero. Agiri horretan obren kostu osoa ziurtatuko da.-

15. Artikulua.-

Zergaren likidazioari dagokionez, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentzien ondorioak berariaz ematen diren lizentzienak eurak izando dira.-

16. Artikulua.

Udalak autolikidazioko araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.-

17. Artikulua.-

Lizentziaren titularrak baimendu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakitzen badu, idatz jakinarazi beharko du eta Udalak behin-behineko likidazioa itzuliko dio edo, bestela, osorik deuseztatuko du.

18. Artikulua.-

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egin den likidazioa itzuli edo deuseztatu egingo du, salbu eta titularrak hura berritzea eskatu eta Udalak baimena ematen duenean.-

IX.- AZKEN XEDAPENA.-

Ordenantza hau behin betiko onetsita: 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.-

.....

**UDALAREN HERRI JABARIAREN BAKARREKO ERABILERA EDO
APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUPETU DITUEN
ZERGA ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-**

ERANSKINA.-

Epigrafe A.-

1. Artikulua.-

1. Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei tasak ezartzen eta ordainarazten dizkie udalerriko bideetako lurzoruaren, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik.-
2. Ondare horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat honako hauek joko dira:

- a) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduten enpresak.-
 - b) Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak egiten dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularra edozein dela ere.-
 - c) Hornidura zerbitzuak egiten dituen edozein enpresa, baldin eta zerbitzuak egiteko erabiltzen dituen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko lurzoria, lurgaina edo zorupea atzematen badute.-
3. Artikulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.-

2. Artikula.-

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.-

III. ZERGA EGITATEA.-

3. Artikulua.-

1. Zerga egitate honakoa da: hornidura zerbitzuak ustiatzen enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea, zerbitzuok interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan.-
2. Tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide hau aurreko artikuluan aipatutako enpreas guztiei aplikatuko zaie, bai zerbitzuak egiteko erabiltzen dituzten sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren sareak erabiltzeko, sareetan sartzeko edo haiekin konektatzeko eskubideen titular direnei.-
3. Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide berezi honetan.-

4. Tasa hau bateragarria da udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezar litezkeen beste tasa batzuekin, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak haien subjektu pasibo izan behar direnean 5/1998 Foru Arauaren 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.- Tasa hau ordaintzen duenak ez du edukiko udalerriko bide publikoetako lurzoruen, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik.-

IV. SUBJEKTU PASIBOA.-

5. Artikulua.-

Salbuespenak, eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.-

V. ZERGA OINARRIA.-

6. Artikulua.-

1. Tasaren zerga oinarria kalulatzeko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal mugartean urtean egiten duten fakturaziotik ateratako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.-
2. Sarrera gordinak izango dira enpresari egotzi ahal zaizkionak, udalerrian egindako zerbitzuen ordainez lortutakoak badira.-
3. Ez dira sarrera gordintzat joko zerbitzuen gaineko zeharkako zergak, ez eta gainontzekoenkontura kobratutako partidak edo kopuruak ere, hornidura zerbitzua ustiatzen dituen enpresaren beraren sarrerak ez badira.-
4. Zerbitzuak egiteko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei beraien sareekin konektatzeagatik edo haietan sartzeagatik ordaindutako kopuruak.- Halako sareen titular diren enpresek horregatik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin gisa konputatu behar dituzte.-
5. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 112. Artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko ikuskapenari buruzko Araudiaren 37. Artikuluan ezarritakoari jarraituz, sareen titular diren enpresek Udalari informazioa eman beharko

diote, hark eskatuz gero, sareetan sartzeagatik edo haiekin konektatzeagatik ordaintzen dieten enpresei buruz.-

IV.- KUOTA.-

6. Artikula.-

1. Zerga kuota %1,5 izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko onuradunak haiek berreraikitze edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gainera tasa ordaindu beharko du.-

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du.- Kalte-ordainak zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari dagokiona izango da.-

Udalak ezin ditu barkatu idatz-zati honetan adierazitako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.-

VII.- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.-

8.Artikulua.-

1. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da lehennengoz, eta geroztik sortuko da, urtarrilaren 1ean.-
2. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabarritza publikoaren aprobetxamendua ezin baliatu edo garatu bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.-

VIII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA.-

9.Artikulua.-

Udalak likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoaren sarrera egingo da.-

IX.- TASEN KUDEAKETA.-

10.Artikulua.-

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiru hilean behin, egutegiko hiruhilekoaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan izandako sarrera gordinen aitorpena aurkeztu beharko diote Udalari.- Aitorpen horrekin batera, Udalerrian eginiko fakturazioa egiaztateko agiriak aurkeztuko dituzte, eta udal Administrazioak eskatzen dizkien gainerako agiriak.-

11.Artikulua.-

1. Udal Administrazioak hiru hilean behingo likidazioak egingo ditu.- Behar diren egiaztapenak egin arte likidazioak behin-behinekoak izango dira.- Egiaztapenak amaituta, behin betiko likidazioa egingo da eta interesatuari jakinaraziko zaio.- Borondatezko epean ordaindu ezik, zorra premiamendu bidez ordinaraziko da.-
2. Behin-behineko likidazioa, nolana ere, behin betikoa bihurtuko da aurreko artikuluan aipatutako aitorpena aurkezten den egunetik hiru urte igarotakoan.-
3. Udalaren eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean hitzarmen edo akordioaren bat badago, artikulua honetan eta aurrekoan kudeaketari buruz ezarritako arauak ordeztukoak izango dira.-

12.Artikulua.-

Zergen arloko arau-hauesteak, haien sailkapena eta dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.-

X. AZKEN XEDAPENA.-

Hornidura zerbitzuak usitatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa; jendaurreko aldian inork ez du erreklamaziorik aurkeztu eta horrenbestez behin betiko onetsizat jo behar da; 2004eko 1aren 1ean jarriko da indarrean eta horrela iraungo du harik eta bera aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.-

Udal bideen aprobetxamendu berezia.-

13. artikulua aldarazten da:

- estereoko: 0,55 euro.-
- Tonako: 0,83 euro.-
- Udal bidea etxebizitza edo txabolak eraikitzeako erabiltzeagatik (tonako): 0,42 euro.-

12. artikulua aldaratzen da (fidantza):

- 0 estereotik 150 estereo bitartean: 0 euro.-
- 151 estereotik 500 estereo bitartean : 1.652,78 euro.-
- 501 estereotik 1000 estereo bitartean: 2.065,98 euro.-
- 1000 estereotik gora: 2.479,18 euro.-
- 0 tonatik 100 tona bitartean: 0 euro.-
- 101 tonatik 350 tona bitartean: 1.652,75 euro.-
- 351 tonatik 700 tona bitartean: 2.065,98 euro.-
- 700 tonatik gora: 2.479,18 euro.-

ADMINISTRAZIO-JARDUERAK EGITEAGATIK EDO ZERBITZU-PUBLIKOAK PRESTATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.-

ERANSKINA.-

A epigrafea.-

Establezimenduak irekitzeko lizentzi.

Zerbitzua.

Ordenantzari idatzi berria ematen zaio, ondoren agertzen den moduan geratzen delarik:

Zerga-oinarri eta zerga-kuota.

1. Tasa orokorra:

a) Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko Lege orokorrarekin eta 3/1998 Legean xedatutako jardueretarako lizentzia jasotzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda bildu zuen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuarekin bat etorriz, horietan salikaturik ez dauden jardueren irekieralizentziatarako: 1.100 euro.-

b) Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko Lege orokorrarekin eta 3/1998 Legean xedatutako jardueretarako lizentzia 165/1999 Dekretuarekin bat etorriz, horietan salikaturik dauden jardueren irekieralizentziatarako: 2.200 euro.-

2.- Titulartasun-aldaketek, beti ere lokalean aldaketarik eragiten ez dutenean, ezta jardueraren zabalkunderik ere, tasa egokia ordaintzetik salbuetsita daude.-

3.- Komunitateetako garajeetarako lehen okupazioko eraikinetan ibilgailual gordetzeko jarduerako lokaletarako, kuota 6,00 eurokoa izango da, aparkaleku-partzela bakoitzeko.-

